



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO HERRIKO EKONOMIA SUSTATZERA ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILE OROKORRAK ETA 2024. EKITALDIRAKO DEIALDIA.

Euskal Autonomia Erkidegoko autonomia-estatutuak 10. artikuluan ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du zenbait gaitan. Gai horien artean, 25. puntuan, zehazki, honako hau dago: “Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa sustatzea, garatzea eta planifikatzea, ekonomiaren antolamendu orokorraren arabera

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua udalerrien eskumen propioak arautzen ditu. Lege honetan xedatutako esparruan, udalerriek tokiko ekonomia eta gizarte-garapena eta tokiko enplegu planak edo politikak bideratzeko eskumena izango dute. Artikulu bereko beste puntu batean aipatzen da udalerrien eskumen propioa dela barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea. Zehatzago esanda, merkatu, hornidura-merkatu, azoka, lonja, hiltegi eta kalez kaleko merkataritza antolatzea eta kudeatzea.

Eskumen hori garatzeko, 2021eko maiatzaren 4ko udalbatzan onartu zen 2030 Udalaren Plan Estrategikoa eta bere baitan txertatzen den erronketako bat da eredu ekonomiko propio bat antolatzea honako helburuak lortzeko:

- Ekonomiaren sozializazioa, ekonomiak herritarren beharrianak asebetetzeko rola jokatu behar du, eta Azpeitiko bizilagunek herrian bertan lan egitea ahalbidetu behar du.

- Profesionalizazio eta lehiakortasun maila areagotzea. Egitura ekonomikoak jasaten dituen inter-dependentziak geroz eta nabarmenagoak diren testuinguru globalean, kanpo eta barne erronkei.

- Industria eta lurzoruen transformazioa eta jardueren biziberritzea. Industria, herriko ekonomikoaren motorra izanik, berau egonkortzeko lehentasunezko sektorea da. Azpeitiarrei kalitatezko lanpostuak eskaini eta ibilbide profesionala herrian bertan garatzeko erraztuko lieke, industria indartzeak. Industria bultzatzeak, eta batez ere industria berri baten aldeko apustuak, herritarrei kalitateko bizi-baldintzak izateko aukera sortuko du.

- Herri-merkataritza babestea eta osatzea. Herri-merkataritza funtsezkoa da kaleko bizitzaren oparotasuna eta harreman eta truke sozialaren aberastasunari eusteko.

Modu berean, Herriko ekonomia sustatzeko laguntzak 2023ko otsailaren 7an Udalbatzak onartutako 2023-2025 Diru-laguntzen Plan Estrategikoan daude jasota (2023/03/01ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Diru-laguntzen Plan Estrategikoak honako helburu hauek lortzea dute helburu:

- Azpeitiko garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea, lehen sektorea, merkataritzakoa, enpresakoa eta turistikoa sustatuz.

- Tokiko produkzio-sare lehiakorra bultzatzea, enpresa txikietan, merkataritza-jardueretan eta lehen sektorean eraginez, eta enplegua lortzeko aukerak, genero-berdintasuna eta ingurumen-iraunkortasuna sustatuz eta hobetuz.

Udalaren Ekonomia Batzordeak egindako bilkuretan, aurtengo deialdian kontuan izango dituen ardatz eta irizpide orokorrak aztertu ditu, eta horiek Oinarri arautzaile orokorren eta diru laguntza lerro bakoitza garatzen duen oinarri berezien edukian jaso dira. Laguntza horiek enplegua sortzen duen suspertze ekonomikoa dute helburu eta, baita, herriko ekoizpen-egituren lehiakortasuna indartzea ere, genero berdintasuna, eraldaketa digitala eta ekologikoa indartuz.



Azpeitiko Udala

Gizartea jasaten ari den eraldaketaren eraginez eta bestelako inguruabarretatik eratorritako ezegonkortasunak sortutako egoera gainditzeko helburua ere izango dute.

Lau dirulaguntza lerro aipa daitezke:

1) Zerbitzu sektorean eta lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.

2) Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean sustatzen laguntzeko dirulaguntza.

3) Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak.

4) I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak.

Oinarri Orokorrak edo arautzaileak Udalak onartu duen aurrekontua gauzatzeko oinarrien esparruan onartuko dira Udalak 2021. ekitaldian onartu zuen dirulaguntzen ordenantza orokorraren baitan (laguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan indarrean diren arauak bete beharko dira). Aipatutako helburu horiek garatzeko, bakoitzak bere oinarri espezifikoak izango du, eta bertan lagunduko diren ekintzak zehaztuko dira, bai eta horiek baloratzeko erizpide objektiboak eta haztapena ere.

Dirulaguntzak esleitzeko prozedura lehiaketarena izango da (librea edo lehiakorra).

Laguntza jardueren finantzazioari dagokionez, guztira 400.000,00 €ko zenbatekoaren gastua baimendu da, Azpeitiko Udalaren Aurrekontu Orokorraren 1.1100.471.241.00.01.2024 Transf. arruntak, ekonomia sustapena eta 1.1100.471.241.00.02.2024 Transf. Arruntak, lehen sekt. eta merk. sustapena partidetatik. Aipatutako partidak erabilgarriak izango dira beraien artean.

Oinarri Orokorrak eta lerro bakoitzerako oinarri espezifikoekin batera, 2024. ekitaldirako deialdia ere onartuko da. Oinarriak Laguntza-Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web orrian argitaratuko da, eta 2024ko urriaren 15era arte eskaerak aurkezteko epea izango da.

Azpeitiko Udalaren eta bere erakunde publikoen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 16. artikulua araberak, Alkatetzak du eskumena horiek onartzeko. Gero, jendaurrean jarriko dira, bai Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, dirulaguntzen datu-base nazionalean eta Udalaren Web orrian.

Espedientean jaso dira laguntzaren oinarri diren erabaki eta txostenak.

Euskadiko Tokiko erakundeak arautzen dituen apirilaren 7ko 2/2016ko Legearen 17.1.25 artikulua baitan, "Tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak", eta kontuan izanik aldekoa dela Ekonomia Batzordeak eman duen irizpena, Azpeitiko alkateak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.f artikulua eta Azpeitiko Udaltzarrak 2021eko azaroaren 2an egindako bilkuran Azpeitiko Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorreko 16. artikulua emandako eskumenez baliatuz **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Udalaren alkate-**lehendakariak ERABAKI DUT:**

Aurrena: Herriko Ekonomiaren Sustapenerako dirulaguntzak emateko baldintza arautzaile orokorrak onartzea eta baita lerroetako bakoitzari dagokion baldintza espezifikoak ere.



Azpeitiko Udala

Lau dirulaguntza lerro onartu dira:

- 1) Zerbitzu sektorean eta lehenengo sektorean jarduerak indartzera bideratutako dirulaguntzak.
- 2) Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak eta inbertsioak, bai industria sektorean zein eraikuntza sektorean sustatzen laguntzeko dirulaguntza.
- 3) Ekintzailetasuna sustatuz, bereziki gizarte-ekonomian eta izaera estrategikoa edo berritzailea duten jardueretan enpleguaren sorrera bultzatzeko dirulaguntzak.
- 4) I. sektorean, zerbitzuen sektorean, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzeko dirulaguntzak.

Bigarrena: Aipatutako diru-laguntza horien 2024ko ekitaldiari dagokion deialdia onartzea.

Hirugarrena: Deialdi honi aurre egin ahal izateko guztira 400.000,00 €ko zenbatekoaren gastua baimentzea Azpeitiko Udalaren Aurrekontu Orokorraren 1.1100.471.241.00.01.2024 Transf. arruntak, ekonomia sustapena partidatik 300.000,00€ eta 1.1100.471.241.00.02.2024 Transf. Arruntak, lehen sekt. eta merk. Sustapena partidatik 100.000,00€. Aipatutako partidak erabilgarriak izango dira beraien artean

Laugarrena: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarrik orokorrak eta 2023ko deialdia Dirulaguntzen Estatuko Datu-basean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta Udalaren iragarki taulan argitaratuko dira.

Bosgarrena.- Erabaki honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, deialdia argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen

Azpeitia, 2024ko ekainaren 5a
ALKATEAK,



